

Lan egiten dugun arloetatik, harreman zuzen eta pertsonal bat ezartzea ezinbestekoa izango da gure erakundearen funtzionamenduari begira, azken finean, gai zabala eta konplexua da jorratzen duguna. Gure harremana hurbila, segurua, konfiantzazkoa eta parekatua izango denez, ezinezkoa da botoiari emanda produktua emango duen autozerbitzu kabina bat jartzea. Bezeroarekin ezarri nahi dugun harremana horizontala izango da, hau da, hezkuntza tradizionalako herreman sistematik irten eta horizontaltasuna mantentzea. Formakuntzarekin erakutsiko diegu, hezkuntza premia bereziei erantzuteko esku hartze pertsonalizatuak izango duela garrantzirik handiena. Bezeroekin harremanetan jartzeko hasierako urratsa bilera presentziala egitea ezinbestekoa ikusten dugu. Modu formak zein informal batean izan daiteke. Horrez gain , telefono zenbaki bat eta e mail bat izango dugu eskuragarri, sortu daitezkeen zalantza ezberdinak argitzeko eta bilera orduak ezartzeko.

Bilera presentziaz gain, online zerbitzuak ere emango dira, hartara eskuragarritasuna modu zabalago batean bermatu ahal izango dugu. Online zerbitzuen baitan web gunea ere sartuko dugu gure elkarteari buruzko eta jorratzen dugun gaiaren inguruko informazio orokorra emateko. Kontaktua, informazio esanguratsua, formakuntza emateko erabiltzen dugun materiala, gurekin elkarreraginean dabilzan erakundeak, gure sare sozialak... Sare sozialak aipatuta, zerbitzu hau ere sare sozialetatik emango dugu, eta formakuntzarako esanguratsuak diren postak igoko ditugu. Emaila ere erabilgarria izango zaigu kontaktua mantentzeko.

Formakuntza bakoitzaren ondoren asegarritasun inkesta bidaliko diegu zentzuzki eta formakuntzan parte hartu duten pertsonen, horrela euren ebaluazioa jasoko dugu, eta izan ditzakegun akatsak edo indarguneak identifikatzea erraztu. Hala ere, hori ez da harremanaren amaiera izango, denbora aurrera joan ahala eskola hauetara idatziko dugu (formakuntza amaitu eta 4-6 hilabetetara, adibidez) eta hauen nondik norakoak aztertu, izan ditzaketen duda ezberdinak argituz.